# INFORMAZIOAK
# INFORMACIONES

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK
## ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

### *Eusko Legebiltzarraren aurrekontuaren kontura egiten diren erosketak arautzeko erregelamendua*

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 19ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ondoko erabakia.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

**EUSKO LEGEBILTZARRAREN AURREKONTUAREN KARGURA EGINDAKO EROSKETEN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEA**

**1. Printzipio orokorra**

Eusko Legebiltzarraren aurrekontuaren kargura egiten diren gastu guztiak aldez aurretik tramitatu eta onartu behar dira ondoren azaltzen diren artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.

**2. Gastu-proposamenerako prozedura**

- Gastu-proposamena egitea Legebiltzarreko Adminitrazioko departamentu kudeatzaileen arduradunei dagokie, gastua eragiten duen jardueraren arabera.
- Gastu-proposamenaren txostenean kasuan kasuko lan, hornidura edo zerbitzuaren jatorrizko eskaera sartuko da, gastu-proposamena departamentu kudeatzailea ez den norbaitek egiten duenean (Legebiltzarreko Administrazioko beste departamentu batzuek, Lehendakaritzak, Mahaiko kideek, legebiltzar-taldeek, eta abar).
- Gastu-proposamenean adierazi beharko da zer lan, hornidura edo zerbitzutarako izango den gastu hori, ahalik eta xehetasun gehienekin. Proposamenean esleipena ere sartzen bada, proposatutako aurrekontua erantsi beharko da datu hauekin: esleipendunaren izen fiskala, IFZ eta helbidea, kopuru zehatzarekin batera.
- Kontratista esleipenduna, betiere, aukeratuko da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritako preskripzioen arabera.
- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 122.3 artikuluan xedatutako kontratu txikien kasuan (50.000 euro baino gutxiagoko kontratuak, obretarako kontratuei dagokienez, edo

### *Reglamento regulador de las compras realizadas con cargo al presupuesto del Parlamento Vasco*

La Mesa, en su reunión del día 19 de enero de 2010, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del siguiente acuerdo.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

**REGLAMENTO REGULADOR DE LAS COMPRAS REALIZADAS CON CARGO AL PRESUPUESTO DEL PARLAMENTO VASCO**

**1. Principio general**

Todos los gastos que se realicen con cargo al presupuesto del Parlamento Vasco habrán de ser previamente tramitados y aprobados conforme al procedimiento establecido en los artículos siguientes.

**2. Procedimiento de propuesta de gasto**

- La propuesta de gasto corresponde a las personas responsables de los diferentes departamentos gestores de la Administración parlamentaria, en función de la actividad específica de la que el propio gasto derive.
- El informe de propuesta habrá de incluir la solicitud originaria de la obra, suministro o servicio de que se trate, cuando ésta no proceda del propio departamento gestor (otros departamentos de la Administración parlamentaria, Presidencia, miembros de la Mesa, grupos parlamentarios, etcétera).
- La propuesta de gasto habrá de formularse indicando la obra, el suministro o el servicio de que se trata con el máximo detalle posible. En el caso de que la propuesta incluya la adjudicación, habrá de incluirse en la misma el presupuesto planteado, en el que se contendrá necesariamente la denominación fiscal, el NIF y la dirección del adjudicatario junto con el importe exacto.
- La selección del contratista adjudicatario se realizará, en todo caso, siguiendo las prescripciones establecidas en la Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público y sus normas de desarrollo.
- En el caso de contratos menores conforme a lo establecido en el artículo 122.3 de la Ley de Contratos del Sector Público (contratos por un importe inferior a 50.000 euros, cuando se

18.000 euro baino gutxiagokoak, bestelako kontratuak direnean), gastu-proposamenarekin batera ahal dela hiru hornitzaileren eskaintzak aurkeztuko dira, gutxienez, eta hornitzaile horiek ahal dela bertakoak izango dira. Ez bada posible hiru eskaintza aurkeztea, edo komeni bada lana, hornidura edo zerbitzua hornitzaile zehatz batek egitea, horren zergatia adierazi beharko da proposamenari erantsiko zaion txosten batean.

- Inbertsioei, lanei edo ekipo eta instalazioak erosteari dagozkien gastuen kasuan, proposamenari erantsi egingo zaio proposamena egiten duen zerbitzuaren txostena, legelari nagusiak ontzat emana, zeinetan azalduko den beharrezkoa edo komenigarria dela gastu hori egitea.

- Gastu-proposamen guztiek izan behar dute, betiere, Kontu Hartzailetzak egindako aldeko txostena, nahikoa aurrekontu-zuzkidura badagoela azaltzen duena, eta legelari nagusiaren oniritzia.

- Gastu-proposamena onartzea legelari nagusiari dagokio gastua 12.000 euro baino handiagoa ez denean; Legebiltzarreko Lehendakaritzari dagokio kopurua 12.000 euro baino handiagoa eta 24.000 baino txikiagoa baldin bada, eta Legebiltzarreko Mahaiari, gainerako kasu guztietan.

- Kontu Hartzailetzak edo legelari nagusiak eragozpenik jarriko baliote proposamenari, eragozpen hori idatziz jarriko da eta idazki hori proposamena egin duen pertsonari bidaliko zaio, azter dezan. Proposamena egin duena adierazitako eragozpenarekin ados ez badago, arrazoitutako txosten batean azalduko du ez dagoela ados. Hala ere, eragozpenak irauten badu, Legebiltzarreko Mahaiak hartuko du azken erabakia.

- Gastu-proposamena onetsi ondoren, kontuhartzaileak proposamena egin duen pertsonari jakinaraziko dio eta horrek dagokion kontratazio-prozedurari ekingo dio.

### 3. Aurrekontu gehigarriak

Gastua baimendu ondoren, eta lana edo hornidura egin edo zerbitzua eman bitartean, edozein arrazoi dela-eta kostua gehitu eta horren ondorioz gastuak hasieran onetsitako kopurua gainditzen badu, aurrekontu gehigarria aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera tramitatuko da, eta fiskalizatu egingo da eta aldez aurretik legelari nagusiaren, Legebiltzarreko Lehendakaritzaren edo Mahaiaren onespena izango du, kopuruaren arabera.

### 4. Ordainketa-aginduak

- Legebiltzarreko Lehendakaritzari dagokio ordainketa-aginduak egitea.

trate de contratos de obras, o a 18.000 euros, cuando se trate de otros contratos), se procurará que las propuestas de gasto vayan acompañadas al menos de tres ofertas de proveedores diferentes, preferentemente locales. En caso de que no sea posible la presentación de tres ofertas, o sea conveniente que la obra, el suministro o el servicio sean efectuados por un proveedor determinado, habrán de indicarse los motivos en un informe que se anexará a la propuesta.

- En el caso de gastos relativos a inversiones, obras o adquisición de equipos e instalaciones, la propuesta debe ir acompañada de un informe del servicio proponente, con el visto bueno del letrado o letrada mayor, en el que se indique la necesidad o conveniencia de efectuar dicho gasto.

- Toda propuesta de gasto deberá incluir, en todo caso, informe favorable de Intervención General, en el que conste la existencia de consignación presupuestaria suficiente, y visto bueno del letrado o letrada mayor.

- La aprobación de la propuesta de gasto corresponderá al letrado o letrada mayor, cuando la misma no supere los 12.000 euros; a la Presidencia del Parlamento, si la cuantía es superior a 12.000 euros pero no excede de 24.000 euros, y a la Mesa del Parlamento, en todos los demás casos.

- Si por parte de Intervención General o por parte del letrado o letrada mayor se planteara alguna objeción a la propuesta, se hará constar por escrito, que será remitido a la persona proponente para su examen. Si ésta no estuviera conforme con la objeción formulada, expresará su disconformidad en informe motivado. Si a pesar de ello se mantuviera la objeción, la Mesa del Parlamento resolverá definitivamente.

- Una vez aprobada la propuesta de gasto, el interventor o interventora general lo comunicará a la persona proponente, quien dará curso al correspondiente procedimiento de contratación.

### 3. Presupuestos adicionales

Si, una vez autorizado el gasto y durante la realización de la obra o del suministro, o durante la prestación del servicio, se produjera, por cualquier motivo, un incremento del coste de forma que el gasto supere la cantidad aprobada, el presupuesto adicional será tramitado conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, y será fiscalizado y sometido previamente a la aprobación del letrado o letrada mayor, la Presidencia del Parlamento o la Mesa, según la cuantía.

### 4. Órdenes de pago

- Corresponde a la Presidencia del Parlamento efectuar las órdenes de pago.

- Mahaiak onetsitako funtsen erabilerarako eta kutxaren eta Eusko Legebiltzarraren jabegoko banku-kontuen kargura ordainketak egiteko baimena izateko beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen eta Lehendaritzaren sinadura mankomunatua. Ohiz kanpoko kasuetan eta larrialdietan, legelari nagusiak sina dezake kontu-hartzailearen ordez, eta lehendakariorderen batek lehendakariaren ordez.

### Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geratzen da Mahaiak 1982ko martxoaren 3an hartutako erabakia, Legebiltzarra obligazio ekonomikoak ordaintzera konprometitu ahal izateko prozedura arautzen zuena.

### Azken xedapena

Erregelamendu hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

***

- Las disposiciones de fondos aprobadas por la Mesa y los pagos con cargo a la caja y cuentas bancarias propiedad del Parlamento Vasco deberán ser autorizadas con la firma mancomunada del interventor o interventora general y de la Presidencia. En casos excepcionales y urgentes, la firma del interventor o interventora general podrá ser sustituida por la del letrado o letrada mayor, y la de la Presidencia por la de alguna de las vicepresidencias.

### Disposición derogatoria

Queda derogado el acuerdo de la Mesa del Parlamento Vasco de 3 de marzo de 1982, regulador del procedimiento para que la Cámara pueda comprometerse al pago de obligaciones económicas.

### Disposición final

Este reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

***